

**Kanpo Merkataritza**  
2024ko otsaila. Behin-behineko datuak.

## 2024ko lehenengo bi hilabeteetan, Nafarroako esportazioak % 6,4 igo dira eta inportazioak % 1,5 jaitsi, aurreko urteko aldi beraren aldean

2024ko apirilaren 19a

Otsailean, Nafarroako esportazioak % 0,5 igo dira eta inportazioak % 2,9 urtetik urterako balioetan

### ALDI METATUA URTARRILA-OTSAILA 2024

Nafarroako salgaien esportazioek 1.843,6 milioi euroko balioa izan dute aldi horretan, hau da, % 6,4ko igoera izan dute aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Inportazioen zenbatekoa 1.181,8 milioi eurokoa izan da, hau da, 2023ko aldi berean baino % 1,5 txikiagoa.

*Motordun ibilgailuen*, esportazioen partidarik garrantzitsuenaren, salmenten bolumena % 44,2 igo da. Igoera horren arrazoi nagusia da Italiarako eta Alemaniarako salmentetan izan diren igoerak, aldakuntza-tasak % 105,5ekoak eta % 96,5ekoak izan baitira, hurrenez hurren. Gainerako esportazioak, automobilaren sektorea kontuan hartu gabe, % 4,4 jaitsi dira, eta nabarmentzekoa da *Labe industrialak edo laborategikoak* produktuen portaera ona, % 806,3 igo baitira.

Nafarroako esportazioak jasotzen dituzten herrialde nagusiak dira, zenbateko ekonomikoaren arabera ordenatuta, Frantzia, Alemania, Italia, Portugal eta Erresuma Batua. Nabarmentzekoa da Italiara (% 66,9) eta Alemaniara (% 28,3) egindako salmenten zenbatekoaren hazkundera.

Nafarroako inportazioei dagokienez, partida nagusia *Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak* da, % 20,5eko igoera izan baitu. Igoera horren arrazoi nagusia Alemaniara (% 108,7) eta Poloniara (% 13,4) egindako erosketen igoera da.

**Espainiako egoera.** Espainia osoan, esportazioek % 2,8ko jaitsiera izan dute 2023ko aldi beraren aldean, eta inportazioek, berriz, % 3,0koa.



## OTSAILA

Nafarroako salgaien esportazioek 970,7 milioi euroko balioa izan dute otsailean, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino % 0,5 gehiago. Inportazioek 636,7 milioi euroko balioa izan dute, 2023ko hilabete berean baino % 2,9 gehiago.

Merkataritza-saldoak, hau da, esportazioen eta inportazioen arteko aldeak, 334,0 milioi euroko emaitza positiboa izan du Nafarroan, baina % 3,6ko jaitsiera izan du aurreko urteko aldi berarekin alderatuta.

Estaldura-tasa, hau da, esportazioen eta inportazioen arteko zatidura, % 152,5ekoa izan da, eta 3,5 portzentaje-puntuko jaitsiera izan du 2023ko otsailarekin alderatuta.

**Espainiako egoera.** 2024ko otsailean esportazioak % 3,0 jaitsi dira eta inportazioak % 3,1. Espainia osoko merkataritza-saldoa -2.350,0 milioi eurokoa da. Estaldura-tasa % 93,1ekoa da, aurreko urtean baino portzentaje-hamarren bat txikiagoa.

### 1. TAULA

Nafarroako Foru Komunitateko eta Espainiako esportazioak eta inportazioak (milioi eurotan)

	2024ko esportazioak		2024ko inportazioak		2024		
	Balioa	Urte arteko tasa(%)	Balioa	Urte arteko tasa(%)	Merkataritza-saldoa 2024	Merkataritza-saldoa 2023	Estaldura-tasa (%)
<b>Nafarroa</b>							
Otsaila	970,7	0,5	636,7	2,9	334,0	346,6	152,5
Urtarrila-Otsaila	1.843,6	6,4	1.181,8	-1,5	661,8	533,6	156,0
<b>Espainia</b>							
Otsaila	31.834,9	-3,0	34.184,9	-3,1	-2.350	-2.464,8	93,1
Urtarrila-Otsaila	61.979,1	-2,8	68.057,9	-3,0	-6.078,8	-6.420,5	91,1

Iturria: Geuk egina, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetatik abiatuta.



## 2. TAULA

Nafarroako produktuen herrialde hartzaile nagusiekiko fluxuak. 2024an metatutakoa, milioi eurotan

	2024ko esportazioak	Urte arteko tasa (%)	2024ko inportazioak	Urte arteko tasa (%)	Merkataritza-saldoa 2024	Merkataritza-saldoa 2023
Frantzia	351,7	-12,9	120,4	-31,1	231,3	229,1
Alemania	304,2	28,3	333,2	41,2	-29,0	1,1
Italia	212,0	66,9	71,4	-5,8	140,5	51,2
Portugal	111,5	6,9	53,7	17,6	57,8	58,7
Erresuma Batua	74,1	-14,2	20,6	-6,1	53,5	64,5

Iturria: Geuk egina, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetatik abiatuta.

## 3. TAULA

Nafarroako esportazioak eta inportazioak eremu ekonomiko-geografikoen arabera. 2024an metatutakoa, milioi eurotan

	Esportazioak			Inportazioak		
	Balioa	Gutzizkoaren %a	Urte arteko tasa (%)	Balioa	Gutzizkoaren %a	Urte arteko tasa (%)
<b>Europa</b>	<b>1.475,5</b>	<b>80,0</b>	<b>3,6</b>	<b>942,3</b>	<b>79,7</b>	<b>-1,7</b>
-EB-27	1.327,7	72,0	3,2	887,4	75,1	-1,6
-Europako gainerako herrialdeak	147,8	8,0	7,9	55,0	4,7	-3,9
<b>Amerika</b>	<b>168,2</b>	<b>9,1</b>	<b>24,4</b>	<b>39,1</b>	<b>3,3</b>	<b>-16,0</b>
-Estatu Batuak	67,5	3,7	5,9	20,9	1,8	3,1
-Amerikako gainerako herrialdeak	100,7	5,5	40,9	18,2	1,5	-30,8
<b>Afrika</b>	<b>55,7</b>	<b>3,0</b>	<b>-39,0</b>	<b>67,6</b>	<b>5,7</b>	<b>18,8</b>
<b>Asia</b>	<b>117,8</b>	<b>6,4</b>	<b>57,6</b>	<b>126,5</b>	<b>10,7</b>	<b>-4,7</b>
<b>Ozeania</b>	<b>26,3</b>	<b>1,4</b>	<b>240,7</b>	<b>0,4</b>	<b>0,0</b>	<b>-63,7</b>
Zehaztu gabea	0,2	0,0	-64,8	5,9	0,5	69,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.843,6</b>	<b>100,0</b>	<b>6,4</b>	<b>1.181,8</b>	<b>100,0</b>	<b>-1,5</b>

Iturria: Geuk egina, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetatik abiatuta.



#### 4. TAULA

Nafarroatik esportatutako produktu nagusiak, partiden eta herrialdeen arabera. 2024an metatutakoa, milioi eurotan

	Balioa	Esportazio guztien %a	Urte arteko tasa (%)	Hartzaile nagusiak	Produktuaren esportazio guztien %a	Urte arteko tasa (%)
Turismo-autoak eta gainerako ibilgailu automobilak	555,4	30,1	44,2	Alemania	30,3	96,5
				Italia	23,4	105,5
				Frantzia	21,5	7,2
Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak	237,7	12,9	2,2	Alemania	24,9	-1,1
				Frantzia	13,4	-7,0
				Afrikako Errepublika	11,3	8,2
Lekaleak eta barazkiak, urretan egosiak barne	85,7	4,6	17,2	Frantzia	27,6	13,1
				Erresuma Batua	10,2	16,6
				Estatu Batuak	9,6	21,1
Elektrikoak ez diren labe industrialak edo laborategikoak...	35,5	1,9	806,3	Iran*	39,3	-
				Saudi Arabia	24,3	248,1
				Estatu Batuak*	17,6	-
Hodiak, junturak, ukondoak, errakoreak eta hodian gainerako osagarriak....	32,9	1,8	-11,8	Txekiar Errepublika	26,4	-14,4
				Filipinak	13,2	12,6
				Txina	11,7	13,4

Iturria: Geuk egina, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetatik abiatuta.

\* 2023an ez zen esportaziorik egin

#### 5. TAULA

Nafarroara inportatutako produktu nagusiak, partiden eta herrialdeen arabera. 2024an metatutakoa, milioi eurotan

	Balioa	Inportazio guztien %a	Urte arteko tasa (%)	Hornitzaile nagusiak	Produktuaren inportazio guztien %a	Urte arteko tasa (%)
Ibilgailu automobilen zatiak eta osagarriak	217,3	18,4	20,5	Alemania	35,1	108,7
				Polonia	13,9	13,4
				Txekiar Errepublika	10,8	-32,9
Enbolo alternatiboko edo birakariko motorrak, txinparta bidez diztuak	115,7	9,8	41,7	Alemania	79,9	92,2
				Txekiar Errepublika	13,0	54,6
				Hungaria	7,0	-65,8
Elektrizitaterako hariak, kableak eta gainerako eroaleak	43,6	3,7	9,9	Maroko	87,0	12,0
				Alemania	2,6	-20,7
				Txekiar Errepublika	2,3	-0,4
Transformadore elektrikoak, artezteko gailuak eta abar.	36,8	3,1	104,8	Txina	62,8	360,7
				Turkia	14,4	110,1
				Alemania	11,8	-4,3
Erreakzio-abiarazleak eta -azeleragailuak	32,4	2,7	-52,8	Txekiar Errepublika	78,1	-56,3
				Alemania	21,0	-33,8
				Polonia	0,5	-39,1



CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00



**GARRANTZITSUA.** Uneko urteko zifrak eta aurreko urteko hilabeteetakoak alderatuz gero, emaitzak desberdinak dira, jatorri-iturriaren arabera. Izan ere, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Aduanen eta Zerga Berezien Sailak aurreko urteko behin-behineko zifrekin alderatzen du, eta Nafarroako Estatistika Institutuak (NASTAT), berriz, hilabetez hilabete eguneratzen ari diren aurreko urteko behin-behineko datuekin konparatzen du, Nastatek, arrazoi operatiboengatik, balio horiek baititu.

Jarraian, datuen jatorri-iturriaren arabera Nafarroako Foru Komunitatean gertatzen diren aldeak ikus daitezke.

NAFARROA	Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren Aduanen eta Zerga Berezien Saila		NASTAT		
	Aldia	Esportazioak	Inportazioak	Esportazioak	Inportazioak
Otsaila-23		937,1	608,5	<b>965,5</b>	<b>618,9</b>
Otsaila-24		982,6	645,2	<b>970,7</b>	<b>636,7</b>
Urte arteko tasa		4,9	6,0	<b>0,5</b>	<b>2,9</b>
Urt-Ots-23		1.676,1	1.173,6	<b>1.733,0</b>	<b>1.199,4</b>
Urt-Ots-24		1.846,6	1.181,8	<b>1.846,6</b>	<b>1.181,8</b>
Urte arteko tasa		10,2	0,7	<b>6,4</b>	<b>-1,5</b>

Iturria: Geuk egina, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Sailak emandako datuetatik abiatuta.





#### OHAR METODOLOGIKOA

Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) argitaratutako Kanpo Merkataritzaren estatistikak Nafarroaren eta atzerriaren arteko merkataritza-fluxuak bakarrik hartzen ditu kontuan, Zerga Agentziaren Aduana eta Zerga Berezien Departamentuak emandakoak.

Informazioa Intrastat edo Extrastatetik datozen administrazio-erregistroetatik dator, esportazioak eta inportazioak EBkoak edo EBkoak ez diren hirugarren herrialdeetakoak diren kontuan hartuta, hurrenez hurren.

Balio estatistikoak eurotan adierazten dira, produktuen, herrialdeen eta eremu geografikoen arabera bereizita.

Estatistika hilerok argitaratzen da



#### INFORMAZIO GEHIAGORAKO

Nastat

Kanpo Merkataritza. 2024ko otsaila



#### CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

